

## "Zeruko Argia" astero

*Euzko Gaztedi*, 1963-12: 4.

Ez dakit argi au zerutik datorren edo ez, bañan ala dirudi.

Zergatik?

Astero gure euskera agitzera jexten dan argi au gaurkoz gure izkuntzaren erremintarik onenetakoa degu; ba'ditugu beste irrati ta liburu erreminta onak ere lanean, bañan ez daukagu gaurkoz mundu arazoetan asteroko onek ainbat argi gure izkuntz sokoetara dakarkienik. Eta orrelako argia zerutik zuzen ez ba'dator ere, biotz eta patrika bidetik ziar astero Euskalerra osorako sortzen dan argi au nunbait goi-goian jaiotako argia degu.

Argi onek ba'du gure izkuntzaren osasuna erakusteko doai berezi bat. Nola agertzen ote zaigu ainbeste astindutako gure ama xaarra.

Batetik:

1) Gure izkuntza arrokeririk gabe aberasten ari zaigu; asi gera, zorionez, gure izkuntz-arrokera uzten. Orrek egin digun kaltea! Asmo onenarekin, bañan itz-berri edo neolojismoak neurri gabe erantzi naiean, gure izkuntzari berebiziko karapiloa ari giñan bere lepondotik zintzirika jaktzen.

Izkuntza ez da gramatika, ta ez ta iztegia ere. Oiek gero etorri oi dira. Lehen: esan naia, itz-bizia. Gorde, bai, al'ditugun itz-sustrai eta esakera guziak, ori da galdu bear ez degun aberastasuna; bañan ez nola nai itz asmatzen asi, itzak eta izkuntzak ez dira kolekzioak egiteko ta, alkar jakin-erazitzeko baizik.

2) "Euskera, jaiki adi kanpora", dio "Argia" ere, ta ondo.

Euskera ez degu etxe-barruko izkuntz lotzati bat egin bear. Or ere ba-ditugu akatz pranko. Gaiak eta erabil-bideak mundu zearrekoak ditugu gaur. Angoak gera gu, ta angoa egin nahi degu euskera.

Bestetik:

Asiera ederra, bañan eguneroko argia izatera joan bear luke gure asteroko argi onek.

Ortarako palta diranak, noski: arpideak (irakurri letasuna) ta oarpen edo anunzio geiago.

Sei orritik gutxienez bi anunzioz beteak ikusiko ba'ginitu ba'genduke poz biderik euskaldunok. Anunzioak bi esan-nai ba'ditu, gutxienez: bata, izparringia egiteko dirua, ta, bestea, anunzioak ordaintzen dituztenak beren bitartez salduko duten ustea dutela, ta ia or euskera-saletasunaren ezaupiderik onena.

Euskera dirua ematen asten danean, izango da euskaldun pranko?

Lan au, zeruko argiarekin izkuntza berpizteko egiten ari dan lana, ez da "Zeruko Argia" koena bakarra. Naikoa egiten ari dira berak. Lan au gu danona da, euskaldunona ta euskotar guziona.

Euskeraz dakien bat ez dadilla urteroko arpidea artu gabe geratu, ta dirua eman ez gañera, ez dedila irakurtzen alegindu gabe geratu, irakurriaz aberastuko degu gure

euskera ta. Au egiten ez ba'degu, ez gera euskerari laguntzez uzten bakarrik; euskera betiko zanpatzen ari gera.

Negozioak izan eta euskotarrei saltzeko bearrean daudenak, emen anunziatu ditzatela beren sal-gaiak: batetik euskeraren indarra erakusten ari dira (ta erakusteak uste baño indar geiago sortzen du) ta bestetik euskera aberasteko giro berria sortzen ari dira.

Ta pentsa zazu, irakurle, "Zeruko Argia" au egiazko zerutik etorria izatea era ba'likekela.